

Apirilak 10, ostirala HAZPARNEKO ANDEREA

TALDEA: **Iduzkilore Antzerki Taldea**

LEKUA: **Frontoia**

ORDUA: **22:00**

SINOPSISIA: Ekintza Hazparnen, XX. mende hastapenean, "Indiano Etxeko" Geaxine eta Panpili, Ameriketara dirua eginik Hazparneko herrira itzuli dira, Mayi alabarekin eta Mikolasa etxeko neskatokarekin. Mayik Beñat Ezpeletako mediku gaztea maite du, baina Geaxinek markesa batekin ezkont arazi nahi du eta ber denboran bera markesa bilakatzeko ahaleginak egiten ditu...

Komedia hau nola bukatuko ote da? Ikus eta entzun, laster jakinen duzue...



Apirilak 11, larunbata ARRASTOAK

TALDEA: **Dejabu Panpin Laborategia**

LEKUA: **Frontoia**

ORDUA: **22:00**

SINOPSISIA: Lurrek ez du sekula bere amari buruz galderarik egin. Arrastorik utzi gabe egin zuen alde etxetik bera txikia zenean. Ordutik bakarrik egin behar izan dio bizitzari aurre, etxean harrapatuta bizi den aitarekin, erantzunak bilatzeko astirik gabe.

Orain amaren gorpua hilda agertu da ordea, eta galderak hasi dira berriz bor-borrear. Memoriaren zulo ezkutuenetan uste zituen sentimendu eta munstroei egin beharko die aurre.



AULESTIN
Apirilaren 6tik 11ra

ARTE DRAMA TOPAKETAK

Antolatzaileak



Aulestiko Udala



ArteDrama

Laguntzaileak



Apirilak 6, astelehena AMODIOZKO IPUINAK

TALDEA: **Maite Arrese, Mau Artabe**

LEKUA: **Udal aretoa**

ORDUA: **21:00**

SINOPSISIA: Maitasunezko ipuinak: mota eta zapore guztietakoak, garai desberdinetakoak. Sakratuak eta sorginduak. Hangoak eta hemengoak. Entzunak eta entzun gabeak.

Eta, musika. Aspaldikoa eta gaurkoa. Urruneko eta urrinekoa. Biolaren bidez bizia hartuko dutenak.

Saio honetan ipuinak eta musikak bat egiten dute entzulearen baitan argitxo bat piztu asmoz.

Apirilak 7, asteartea AMETS ZIRKOA SALGAI

TALDEA: **Aldatzen Laguntzen**

LEKUA: **Udal aretoa**

ORDUA: **21:00**

SINOPSISIA: Xorroxin eta Azken pailazoek 'Amets Zirkoa' dute, baina erabaki gogor bat hartu beharra izan dute, zirkoa itxi eta saltzen jartzea, gaur izango delarik azken emanaldia.

E.H. osotik zirkoa bizkar gainean eramanaz ibili ondoren E.H.ko hainbat artistekin batera, zirkoa istera doazen azken emanaldi honetan, beraiek egin beharko dituzte zirkoko esketx guztiak, artistak kalera bota behar izan dituztelako.

Apirilak 8, asteazkena AMODIOAREN ZIEGA

TALDEA: **Lauka Teatroa**

LEKUA: **Udal aretoa**

ORDUA: **21:00**

SINOPSISIA: Xabier Mendigurenen Amodioaren Ziegak gaurkotasunezko egoera bat kontatzen du, egoera sozio-politiko konkretu bat. Kartzela bateko "bis a bis" bat hain zuzen. Bikote bat da protagonista (Aitor eta Miren). Bata preso eta bestea bisitan doakion bikotekidea. Egoeran harrapatuta, ihes egin ezinik, aske izateko eta bizirik sentitzeko eskubideagatik borrokatzen dute. Bien arteko hari hauskorrenak zein indartsuenak begi bistan utziz.

Idazleak kartzela bateko ziega batean kokatzen ditu pertsonaiak etorkizun zehatzik gabeko amodio istorio hunkigarria azaleratuz.

Apirilak 9, osteguna KOKAKOLA ETA BAREA

TALDEA: **Ramon Agirre, Inazio Tolosa**

LEKUA: **Udal aretoa**

ORDUA: **21:00**

SINOPSISIA: Ez Dok Amairuren argazki ofizialean ez dira azaltzen. Despertadoreak ez zuen jo goiz hartan. Baina Ray eta Nik showman paregabeek bere lekua merezi dute Euskal Kantagintza Olinpoan. Eta leku hori berreskuratzera etorri dira, euren memoriak jasotzen dituen Urrutiko Intxaurrak best-sellerra besapean hartuta.

